

4. GAIA.-

ADMINISTRAZIO-ERREKURTSIAK

1. KONTZEPTUA ETA IRISMENA
2. ERREKURTSIEN OBJEKTUA
3. ERREKURTSIEN HELBURUAK
4. LEGITIMAZIOA
5. ADMINISTRAZIO-ERREKURTSI MOTAK
 - 4.1. Gora jotzeko errekurtsia
 - 4.2. Aukerako berraztertze-errekurtsia
 - 4.3. Berrikusteko errekurtsio berezia
6. ADMINISTRAZIO-ERREKURTSIEN PROZEDURA
 - 5.1. Hasiera
 - 5.2. Instrukzioa
 - 5.3. Ebazpena
 - 5.4. Errekurtsien aniztasuna

1. KONTZEPTUA ETA IRISMENA

1. Administrazio-egintzak aurkatzeko tresna da administrazio-errekurtsia, Legeak ezartzen dituen baldintzei jarraituz, beti ere interesdunak errekurtsia jartzen badu. Administrazioak berak aztertu behar du ea jokatu duen ordenamendu juridikoak jasotzen duenarekin bat eta, horrela, Administrazioak berak bere burua kontrolatzen du. Egileek kritikatu dute Administrazio-errekurtsiak beharrezkoak izatea administrazio bidea agortzeko. Administratuari kalteak eragin diezazkioke administrazio-errekurtsiak jartzeak, batzuetan dirua xahutu behar baitu aholkulari edo abokatuari ordaintzeko eta, bestaldetik, premiazko auziak baldin badira, Administrazioak eman behar duen ebazpenaren zain egon beharko duela eta, kasu askotan denbora alferrik galduz (PARADA).

2. Administrazio-egintzak deuseztatzeko beste baliabide bat da berrikusteko prozedurak izapidetzea. Hala ere, aurreko gaian azaldu zenez, Administrazioak argi eta garbi azaldu behar du bere borondatea eta ekimena berak emandako ebazpenak edo egintzak deuseztatzeko. Hauxe da ezberdintasun nagusia administrazio-errekurtsiak eta egintzak berrikusteko prozeduren artean: lehenengoetan beti prozedura interesdunaren ekimenez hasten du eta, horretarako, Legeak epe jakin batean behartzen du interesduna helegitea aurkezteko. Administrazio-egintzak berrikusteko prozeduretan, aldiz, epeak luzeagoak izateaz gain (egintza deuseztagarriak berrikusteko), Legeak Administrazioari ahalbidetzen dio prozedurari ekitea edozein momentutan, egintzaren akatsa oso larria bada, esaterako, egintza deuseza omen bada (APEL 106.1 art.). Administrazio-egintzak berrikusteko prozedurari dagozkion arauak aplikatzeko, Administrazioak berak aitortu behar du jardun akastuna burutu duela. Bestela, errekurtsiak jartzeko epeak modu okerrean luzatuko liriateke eta errekurtsien gaineko araudia alferrik ezarriko litzateke.

3. Interesdunak jurisdikzio bidea hartu gura badu, Administrazio bidea agortu beharko du, eta, batzuetan, horrek dakar aurretiazko errekurtsoa jartzea Administrazioaren aurrean. Hori gertatuko da administrazio-egintzak administrazio bidea agortu ez badu. Beste kasuetan, hau da, administrazio-bidea agortzen badu, helegitea aukerakoa da, eta interesdunak zuzenean Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioaren aurrean errekurtsoa aurkez dezake. Edozelan, argi dago, administrazio-bidea agortzeko oztopoak jartzen baditu Administrazioak, izan ere, errekurtsoak tarteratu edo prozedura izapidetzean, horrek ere babes eraginkor judizialerako eskubidea urratuko luke, administrazio-errekurtsoak jartzea auzibiderako sarbidea lortzeko aurrebaldintza baita.

4. Horregatik, administrazio errekurtsoak ebazteko prozeduretan ere defentsa-eskubideak eta berme juridikoak errespetatu behar ditu Administrazioak zein legegileak. Adibidez, Konstituzio Auzitegiak bere momentuan onartu zuen babes eraginkor judizialerako eskubidea bortxatu zela, Administrazioak isiltasun kasuetan (erantzunik edo ebazpenik ematen ez zuen kasuetan) errekurtsoak jartzeko epea irekitzen bazituen. Ebazpenik ez izateak interesdunari dagokion defentsa burutzea eragozten zuen, eta legegileak prozedura lege berrian arau hori jaso du, interesdunari edozein unetan errekurtsoak tarteratzen baimenduz (APEL 121.2 art.).

5. Administrazio-errekurtsoak interesdunek aurrera eramaten dituzten jardunak dira, zeinen helburua administrazio-egintzen akastunak aitortzea da, Legeak ezartzen duenari jarraituz.

2. ERREKURTSOEN OBJEKTUA

6. Administrazio-egintzen aurka jotzeko tresna formalak dira. Honako egintza hauek errekurtsoen objektuak izan daitezke:

a) Ebazpenen eta izapide-egintzen aurka, azken horiek gaiaren funtsa erabakitzen badute zuzenean edo zeharka, prozedurak jarraitu ezina eragiten badute, defentsagabezia edo eskubide eta interes legitimoen kalte erreparaezina sortzen badute, interesdunek aukera izango dute gora jotzeko errekurtsoa eta aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkezteko, oinarritzat harturik deuseztasunari eta deuseztagarritasunari buruz lege honen 47. eta 48. artikuluetan azaldutako arrazoietakoren bat (APEL 112.1 art.).

b) Gainerako izapide egintzen kontra jotzeko, ezinbestekoa da azkeneko edo behin betiko ebazpena aurkatzea.

c) Erregelamenduen aurka ezin daiteke administrazio-errekurtsorik zuzenean jarri. Hala ere, erregelamenduetan oinarritutako egintzen aurka bidezko errekurtsoak jar daitezke. Kasu horretan helegitea aurkeztu behar da erregelamendua onartu zuen organoaren aurrean eta berak ere ebazten du errekurtso hori (APEL 112.3 art.).

d) Kasu eta arlo sektorial jakin batzuetan, eta gaiaren berezitasunak hala eskatzen duenean, gora jotzeko errekurtsoaren ordez beste prozedura batzuk ezar ditzakete legeek: aurkaratzea, erreklamazioa, adiskidetzea, bitartekotza eta arbitrajea. Hierarkian goragoko instrukzioen mendean ez dauden kide anitzeko organoetara edo batzorde espezifikotara jo beharko da horretarako, lege honek pertsonen eta administrazio-prozeduretan interesdun direnei aitortzen dizkien printzipio, berme eta epeak zainduz (APEL 112.2 art.). Erreklamazio ekonomiko administratiboak aurkeztean, haien legeria espezifikoan ezarritako prozedurei jarraituko zaie.

3. ERREKURTSOEN HELBURUAK

- 7.** Administrazioak emandako egintzak berraztertzea da oinarrizko helburua.
- 8.** Administrazioarekiko jurisdikzioan errekurtoa jartzeko aurrebaldintza da administrazio-bidea agortzea. Egintza emandako organo beraren aurka jo daiteke (berrikusteko errekurtoak) edota gorago organoaren aurrean aurkez daiteke errekurtoa (gora jotzeko errekurtoetan).
- 9.** Administrazioak emandako egintzen deuseztasuna eta deusezagarritasuna kontrolatzea. Herritarren eskubide, interesak eta defentsa baliabideak bermatzea ahalbidetzen dute administrazio-errekurtoek. Administrazio-egintzen legaltasun presuntzioa suntsitzea. Administrazioaren jarduera betebeharrekoa da, eta herritarrari dagokio egintza horien baliogabetasuna salatzea.

4. LEGITIMAZIOA

- 10.** Ordenamenduan arlo jakin batzuetan akzio publikoa onartzen da (hirigintzan, ingurumena). Kasu horietan edozeinek errekurtoa aurkez dezake.
- 11.** Orokorrean administrazio-errekurtoa jartzeko legitimazioa interesdunek baino ez dute izango. Beraz, APEL 4. artikulua jasotako kontzeptuari kasu egin behar zaio (APEL 112.1 Art.).
- 12.** Nolanahi ere, EK 24.1 artikulua araberan, egintzak ukitzen duen eskubide subjektibo edo interes legitimo baten tituludunek izango dute legitimazioa. Kasuz kasu aztertu behar da ea duen legitimazioa errekurtoa aurkezten duen herritarrak, eta ea ekarriko dizkion funtsean administrazioak emango duen ebazpenak onurak ala kalteak.

5. ADMINISTRAZIO-ERREKURTSO MOTAK

5.1. Gora jotzeko errekurtoa

- 13.** Objektua: administrazio-bidea agortzen ez duten egintzen aurka aurkezten da (APEL 121.1 art.). Zein ebazpenek agortzen dute administrazio-bidea?. APEL 114.1 artikuluari jarraiki, honako hauek dira:
- a) Gora jotzeko errekurtoen ebazpenak.
 - b) APEL 112.2 artikuluan jasotako aurka egiteko prozeduren ebazpenak. Prozedura berezietarako jasotzen diren helegiteak, esaterako, administrazio kontratuetan.
 - c) Mailaz goragokorik ez duten administrazio-organoen ebazpenak, lege batek aurkakorik ezartzen ez badu.
 - d) Prozedura amaitzekoak diren akordio, itun, hitzarmen edo kontratuak.
 - e) Ondare-erantzukizuneko prozeduretan, administrazio-ebazpenak amaitu egiten du administrazio-bidea, edozein dela ere prozedura ekarri duen harreman mota, publikoa nahiz pribatua.
 - f) 90.4 artikuluan jasotako zehapen-gaietako prozedura osagarrien ebazpenak.

g) Legeak edo erregelamenduak jasotzen duten gainerako administrazio ebazpenak. Gogoratu TEOL 52.2 artikulua aplikatu behar dela jakiteko zer egintzek agortzen duten administrazio bidea Toki Administrazioan.

h) Estatuko Administrazioaren eremuan Administrazio bidea agortzen dute honako egintza hauek: Gobernuako kide eta organoek emandakoak; Ministro eta Estatuko Idazkariak emandakoak beren eskumenak egikaritzean; Zuzendari nagusiaren maila duten organo zuzendariak emandakoak langileekin zerikusia duten gaitan; Administrazio Orokorrari loturik edo haren mende dauden organismo publiko eta zuzenbide publikoko entitateetan, pertsona bakarreko edo kide anitzeko zuzendaritza-organoko nagusiek beren estatutuek ezartzen duten arabera emandakoak, legez besterik ezartzen ez bada. (APEL 114.2 art.).

14. Beste errekurtsu mota batzuk: Legeek beste errekurtsu edo erreklamazio motak ezar ditzakete gora jotzeko errekurtsuaren ordean esparru jakin batzuetan edo gaiak hala eskatzen duenean. Helegite horiek aurkatzeko beste prozedura batzuetan edo organo edo batzorde berezien aurrean jar daitezke, baina horietan prozedurarekin lotutako printzipioak, oinarriak eta herritarrei dagokien bermeak errespetatu behar dira (APEL 112.2 art.).

15. Jartzeko epea eta zenbateko modua (APEL 122. art.):

a) Hilabeteko epea ebazpen espresa bada.

b) Ebazpena hartzaileari jakinarazi zaion egunaren biharamunetik zenbatuko da epea. Hala ere, epeak hilabetez edo urtez zenbatzen badira, egintza jakinarazi zenetik kontatzen dira (2011/11 KAE). Jurisprudentziak ulertu du egun bat gehiago duela interesdunak, hurrengo egunetik aurrera zenbatuz gero. Beraz, datatik datara kontatzen dira, igandeak eta jaiegunak barne, azkeneko egunean izan ezik (APEL 30.4 art.).

c) Ebazpen espresa ematen ez bada, errekurtsua edozein unetan jar daiteke, isiltasunak efektuak sortu zituen egunaren biharamunetik (APEL 122.1 art.). Eskatzaileak eta izan litezkeen beste interesdun batzuek gora jotzeko errekurtsua jar dezakete, noiznahi, araudi espezifikoaren arabera administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta biharamunetik aurrera. Legegileak KAREN doktrina aplikatu du, defentsa gabezia saihesteko. Ebazpena edo egintzaren jakinarazpena egin arte, errekurtsua jartzeko epea ezin dela zabaldu adierazi zuen Konstituzio Auzitegiak. Interesdunak dagokion helegitea aurkeztu ahalko du, baina ebazpenaren jakinarazpena jaso arte itxoin egin dezake helegitea aurkezteko. Horregatik, Lege berriak, iraganekoa ez bezala, adierazten du argi eta garbi errekurtsua tartera daitekeela "noiznahi". Behin jakinarazita, hilabeteko epea kontuan hartu beharko litzateke, lehen aipatu den legez. Bestela, babes eraginkor judiziala bortxatuko luke Administrazioak, bere beharra ebazpena eman eta jakinarazteko ez duelako bete (2006/14 KAE).

d) Epe horiek amaitu eta errekurtsorik jarri ez bada, ebazpena irmoa izango da efektu guztietarako, betiere ebazpena isiltasunez sortzen bada.

16. Eskumena eta aurkezpena (APEL 121.2 art.):

a) Egintza eman zuenaren hierarkian goragoko mailako organoak ebatziko du errekurtsua.

b) Egintza eman duen organoari nahiz errekurtsoa ebatziko duen organoari aurkez dakioke errekurtsoa. Egintza eman duen organoari errekurtsoa aurkeztuta, horrek goragoko organoari bidaliko dio hamar eguneko epean, txostena eta espedientearen kopia erantsiz.

17. Ebazpena eman eta jakinarazteko epea (APEL 122.2 art.):

a) Errekurtsoaren ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hiru hilabete izango da gehienez. Interesdunaren ekimenez hasitako prozedura izanda, epea zenbatzen da, errekurtso-idazkia organo eskudunaren erregistroan sartu zenetik [APEL 21.3 b) art.].

b) Epe hori amaitu ebazpenaren eman eta jakiarazi gabe, errekurtsoa ezetsi egin dela uler daiteke, APEL 24.1 artikulua jasotako kasuan izan ezik. Izan ere, aurka egindako egintza ere isiltasunez emandako ezezpena bazen, errekurtsoa ebazteko epea amaitu eta, ebazpenik eman ez bada, errekurtsoa baietsi egin dela ulertuko da. Isiltasun negatibo bikoitzak positibotzat hartu behar da. Legegileak zigortzen du Administrazio berak bi aldiz bere beharra ez betetzeagatik.

4.2. Aukerako berraztertze-errekurtsoa

18. Objektua: Administrazio-bidea agortzen duten administrazio-egintzak dira berraztertze errekurtsoaren objektua. Hala ere, ezin izango da aurkeztu gora jotzeko errekurtsoa ebazten duen egintzaren aurka. Kasu honetan Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioaren errekurtsoa baino ezin daiteke jarri (APEL 122.3 art.). Aurreikuspen horretatik salbuetsi behar da APEL 125.1 artikulua jasotzen duena, hau da, interesdunak berrikuspen-errekurtso berezia aurkezteko asmoa baldin badauka.

19. Ebazteko eskumena: Egintza eman duen organoari aurkezten zaio berraztertze errekurtsoa eta organo horrek ere ebazten du.

20. Izaera: aukerakoa da. Interesdunak, nahi izanez gero, bai barraztertze errekurtsoa bai administrazioarekiko auzien errekurtsoa jartzea erabaki dezake, baina berraztertze errekurtsoa jarri gero, horren ebazpena itxaron beharko du administrazioarekiko auzien errekurtsoa jarri ahal izan aurretik. Administrazioarekiko auzi-errekurtsorik ezin jarriko da ebazpen espresua eman arte edo jarritako berraztertze-errekurtsoaren presuntziozko ezespena gertatu arte (APEL 123.2. art.).

21. Ezin daiteke jarri berraztertze errekurtsoa ebazten duen egintzaren aurkako administrazio-errekurtsorik. Dena den, administrazioarekiko auzien errekurtsoa eta, eskakizunak betetzen badira, ezohiko berrikuspen errekurtsoa aurkez daiteke ebazpen horren kontra (APEL 122.3 art.).

22. Aurkezteko epea: errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa da egintza espresu dagokienez. Isiltasuna ematen bada, gora jotzeko errekurtsoan jazotzen den legez, helegitea edozein unetan aurkez daiteke, isiltasunak efektuak sortzen duen biharamunetik (APEL 124.1 art.).

23. Ebazteko epea: Errekurtsoaren ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hilabetekoa izango da gehienez (APEL 124.2. art.). Epe hori zenbatzen da, errekurtso-idazkia organo eskudunaren erregistroan sartu zenetik.

4.3. Berrikuspen-errekurtso berezia

24. Objektua: Administrazio-bidean irmoak diren egintzak dira berrikuspen-errekurtso bereziaren objektua. Berezia da irmotasuna hausteko arrazoi indartsuak izan behar baitira. Salbuespeneko errekurtsoa da, beraz, hau tarteratzeko arrazoiak modu zorrotz eta hertsian interpretatu behar dira. Argi eta garbi agertu behar dira hurrengo zio horiek errekurtsoa onartutzat hartzeko.

25. Errekurtsoa jartzeko arrazoiak (APEL 125.1 art.):

- a) Egintza ematean egitezko okerren bat gertatzea, espedienteari erantsitako dokumentuei lotua.
- b) Gaia ebazteko funtsezko balioa duten dokumentuak agertzea, ebazpen errekurrituaren okerra agerian uzten dutenak, geroago bada ere.
- c) Ebazpenean funtsezko eragina izan zuten zenbait dokumentu edo lekukotasun faltsuak zirela deklaratzeko epai judizial irmo batek, ebazpenaren aurretik edo ondoren.
- d) Prebrikazio, funtzionario-eroskeria, indarkeria, iruzurrezko azpikeria edo bestelako jokaera zigorgarri baten ondorioz ematea ebazpena, eta epai judizial irmo batek hala deklaratzeko.

26. Jartzeko epea (APEL 125.2 art.):

- a) Lau urtebete a) puntuan jasotzen den arrazoiari dagokienez, egintza jakinarazi zenetik zenbatuta.
- b) Hiru hilabete gainontzeko arrazoiari dagokienez, agiri berriak ezagutzen direnetik edota epaia irmo bilakatzen denetik.

27. Eskumena: egintza eman zuen organoari aurkezten zaio eta ebazteko eskumena ere berak izango du.

28. Izapidetzea

- a) Estatuko administrazioak edo autonomia erkidegoetakoek Estatu Kontseiluari edo autonomia-erkidegoko aholku-organuari irizpena eskatu behar diote (EKLO 22.9 eta 23. art.).
- b) Aipatutako irizpena eskatu beharrik gabe, eta erabaki hori hartzeko arrazoiak azalduta, errekurtsoa izapidetzeko eskaera ez onartzea erabaki dezake, lehen aipatutako arrazoiak ematen ez direnean, edota eduki berdinetan oinarritzen diren errekurtsoak ezetsita daudenean (APEL 126.1 art.).
- c) Eskumena duen organoak ere arazoaren funtsa aztertuko du, hau da, irmo bilakatutako auzia ere ebatziko du (APEL 126. 2 art.).

29. Isiltasuna: ezohiko errekurtsoa behin jarrita, hiru hilabete igarotzen badira ebazpena eman eta jakinarazi gabe, helegitea ezetsizat ulertu behar da, Administrazioarekiko auzi jurisdikzio bidea irekita geratuz (APEL 126.3 art.).

5. ADMINISTRAZIO-ERREKURTSOEN PROZEDURA

5.1. Hasiera

30. Errekurtso-idazkiak betekizun batzuk eduki behar ditu (APEL 115.1 art.):

- a) Errekurtso-egilearen izen-abizenak eta hura identifikatzeko datuak.
- b) Zer egintzaren aurka egiten den errekurtsoa eta zergatik.
- c) Tokia, eguna, errekurtso-jartzailearen sinadura, jakinarazpenak jasotzeko bidea eta, hala badagokio, lekua.
- d) Administrazio-zer organo, erakunde edo unitateri zuzentzen zaion, eta zein den haren identifikazio-kodea. Nahiz eta errekurtsoaren izena gaizki egon edota izenik eman ez, helegitea izapidetuko da, beti ere bere benetako izaera ondorioztatzen dela (APEL 115.2 art.).
- f) Xedapen berezietan ezarritako gainerako zehaztasunak.

31. Errekurtsoen arrazoiak: deuseztasuneko edo deusezgarritasuneko arrazoietakoren batean oinarritu beharko da (APEL 112.1 art.). Egintza bat deuseztagarri bihurtzen duten huts eta akatsak eragin dituenak ezin izango ditu gero huts edo akats horiek alegatu (APEL 115.3 art.).

32. Administrazioak, kontu formalak direla eta, erabaki dezake errekurtsoa ez onartzea. Honako hauek dira Administrazioak adieraz ditzakeen arrazoiak errekurtsoa ez onartzeko eta, beraz, funtsa ez aztertzeke:

- a) Administrazio-organoak eskumenik ez izatea, eskuduna beste administrazio publiko batekoa denean. Organo eskudunari bidali beharko zaio errekurtsoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko legearen 14.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.
- b) Errekurtso-jartzailearen legitimaziorik eza.
- c) Errekurtsorik ezin jarri zaion egintza bat izatea.
- d) Errekurtsoa jartzeko epea igaro izana.
- e) Errekurtsoak funtsik ez izatea, nabarmen.

33. Ondorioak: errekurtsoak aurkezteak ez du zuzenean etengo aurka egindako egintza betearaztea, xedapenen batean bestelakorik adierazten ez bada.

34. Egintzaren betearazpena etetea: errekurtsoetan interesdunak administrazioari berak emandako egintzak eteteke eska diezaioke. Administrazioak ez du etete hori eman beharrik. Gainera, Administrazioak, ofizioz, erabaki dezake betearazpena etetea. Egintzen eraginkortasuna geldiaraziko du Legeak adierazten duen inguruabar batzuk aintzat hartuz (APEL 117.1 eta 2 art.).

- a) Administrazioak bi inguruabar aztertu behar ditu:
 - Eteteak zer-nolako kalteak eragin diezazkiekeen interes publikoari edo hirugarren batzuei.
 - Errekurtso-jartzaileari zer kalte egiten zaion egintza errekurrituaren berehalako efikaziaren ondorioz.

b) Hori behin neurturik, eta arrazoizko erabakia hartuta, egintza eteteko hurrengo bi baldintza hauek eman behar dira:

- Betearazpenak kalte erreparaezin edo erreparagaitzak ekartzea.
- Aurkaratzearen oinarria lege honen 47.1 artikuluan erabateko deuseztasunerako aurreikusitako arrazoietakoren bat izatea.

c) Hilabete bat igaro eta Administrazioak ebazpenik jakinarazi ez badio interesdunari, egintzak etetetzat joko da. Interes publikoa edo nornahirena babestu eta ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko neurriak har ditzake organoak. Adibidez, kauzio nahikoa eska dakioke errekurtsu egileari kalteei aurre egiteko (APEL 117.3 eta 4 art.). Azken finean, hemengo kontuan ere APEL 56 artikulua kasu egin behar zaio, Administrazioak kautela neurriak har ditzakeelako, ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko. Zuhurtziaz jokatu behar du Administrazioak alderdien interes guztiak neurtuz eta, ahal badu, orekatuz. Horrela, proportzionaltasun printzipioari men egin beharko dio eta, gehienbat, ezinbestekoak diren neurriak baino ez ditu hartu behar.

d) Errekurtsuaren xedea hainbat pertsonari eragiten dion administrazio-egintza bat aurkaratzea bada, egintza agertu zen aldizkari ofizialean argitaratu egin behar da egintza horren efikazia eten dela (APEL 117.5 art.).

5.2. Instrukzioa

35. Prozedura erkidearen arau arruntei jarraitzen die, entzunaldia izan ezik. Hau honako kasu hauetan besterik ez da onartuko (APEL 118.1 art.):

a) Jatorrizko espedientean jaso ez diren egitate edo agiri berriak kontuan hartu behar direnean, agiri horien berri eman behar zaie interesdunei. Hauexek alegazioak aurkezteko aukera izango dute gehienez hamar egunetan gutxienez eta hamabost gehienez (APEL 118.1 art.). Errekurtsua, lehengo prozeduran agertu ziren txostenak eta proposamenak ez dira agiri berrizat hartzen, ezta interesdunek prozedura horretan aurkeztu zituztenak ere (APEL 118.3 art.).

b) Errekurtsu-egileaz gain beste interesdunen bat dagoenean: interesdun horri edo horiei errekurtsuaren kopia emango zaie bidezko iritzitako guztia alega dezaten (APEL 118.2 art.).

c) Errekurtsuen ebazpenetan errekurtsu egilearen agiri eta alegaziorik ez da kontuan hartuko, alegazioen izapidean horiek ekarri ahal izan zituenean eta hori ez zuen egin. Halaber, frogen praktikarik ezin da eskatu, lehengo prozeduran horiek ez praktikatzea errekurtsu-jartzaileari lepora dakionean (APEL 118.1 art.). Xedapen hau nahiko eztabaidagarria izan daiteke. Lehenik, errekurtsu sistema oinarritzen da administrazio bidea zabaltzeko aukera ematean. Defentsarako baliabideak zailtzen badira, defentsa gabezia sortzeko arriskua handia dago. Bigarrenik, Administrazioak hierarkia printzipioa aplikatu behar du, baina nola ebatz dezake goragoko organoak arazo edo auzi bat agiri edo froga guztiak ezin baditu aztertu? Honen erabakia Administrazioaren azkeneko borondatetzat hartu behar da. Modu zuzenean ebazten ez badu, jurisdikzioak berak emandako egintza berrikusiko du. Hirugarrenik, jurisdikziorako errekurtsuok gora egingo dute, Administrazioak akats gehiago egin ditzake eta.

5.3. Ebazpena

36. Errekurtsoak ebazterakoan, ez dira kontuan hartuko errekurtso-egileak izapidean aurkeztu ez dituen egitate, agiri eta alegazioak (APEL 119. art.).

a) Erabakia: errekurtsoan azaldutako uziak osorik edo zati batean baietsiko dira, ezetsi egingo dira edota onartezintzat joko dira, adibidez, errekurtsoa jartzeko epea bete ez delako.

b) Edukia: prozedurako kontu guztiak argituko ditu, bai formazkoak bai edukizkoak, interesdunek alegatutakoak izan edo ez. Interesdunek alegatu ez dituzten kontuen gainean ebazpena eman baino lehen, interesdunei entzun behar zaie.

c) “*Reformatio in peius*” galaraztea: errekurtso-egileak eskatutakoarekin bat etorriko da ebazpena, eta ezin izango du inola ere interesdunaren aurreko egoera okerragotu (APEL 119.3 art.).

d) Jarduketak atzera eraman: Forma-akats bat dela-eta, edukiari buruzko ebazpena ematea egokitzat jotzen ez bada, prozedura akatsa egin zen urratsera atzeraeragitea aginduko da. Egintza baliozkotzeko eskumena duen organoak erabaki dezan jarduketak baliozkotzea, 52. artikuluan xedatutakoaren arabera. (APEL 119.2 art.).

5.4. Errekurtsoen aniztasuna

37. Kontzeptua: Administrazio-egintza beraren aurka hainbat errekurtso tarteratzen dira eta auzibidean beste helegite bat aurkeztu bada egintza beraren aurka.

38. Errekurtsoa ebazteko organo eskudunak ebazteko epea eten dezake, harik eta jurisdikzioak epaia eman arte (APEL 120.1 art.). Organo eskudunak interesdunei jakinarazi behar die erabaki hori eta aurka egin dezakete. Interesdunak dagokion errekurtsoa jartzeak administrazio-egintza beretik datozelako etenda dauden beste prozedurei ez die eragiten, administrazio egintza beraren aurkako errekurtsoa tarteratu bada (APEL 120.2 art.).

39. Jurisdikzioak epaia behin emanda, interesdunei jakinaraziko zaie, eta organo eskudunak errekurtsoa ebatz dezake beste izapide gehiagorik burutu gabe, entzunaldia izan ezik, egoki denean (APEL 120.3 art.).

BIBLIOGRAFIA

GONZÁLEZ PÉREZ, J. eta GONZÁLEZ NAVARRO, F., *Comentarios a la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común*, 2ª edic., Cívitas, Madril, 1999. LÓPEZ MENUDO, F., “Arbitraje y Derecho público”, *Justicia Administrativa*, 2, 1999. MALLOL GUARRO, F., *Los recursos administrativos en el procedimiento administrativo*, Bartzelona, 2000. NIETO-GUERRERO LOZANO, A.M., *El recurso administrativo de revisión*, Madril, 1998. SARMIENTO ACOSTA, M.J., *Los recursos administrativos en el marco de la justicia administrativa*, Madril, 1996. TORNOS MÁ, J., “Los recursos administrativos en la Ley 4/1999”, *Justicia Administrativa*, 5, 1999.